

10. PROKLAMA

Lantegien eta topaketen programa

ENVOLTURA

Solo pieza zenbaiten aurkezpena: Isabel de Naverán, Idoia Zabaleta, Leonor Leal, Bobote eta Pedro G. Romero

Arte Ederren Museoa (Vitoria-Gasteiz), toki mugatua, sartzea gonbidapenez
Maiatzaren 11n, 19:00etan

Gonbidapenak Arte Ederren Museoan eskura daitezke, maiatzaren 11n bertan, 18:00etatik aurrera

HISTORIA(K)

Dokumentalaren proiektzioa eta Olga de Sotok gidaturiko mintegia

Artium, Plaza aretoa, sarrera doan
Maiatzaren 12an, 10:00etatik 14:00etara

Argibideak eta izen-ematea: proklamar@gmail.com (toki mugatua)

OIHANA. TXARA GIZAKIAK ZELATAN


Pedro G. Romero-ren hitzaldia

Artium, Emanaldi-aretoa, sarrera doan
Maiatzaren 12an, 18:00etan

BOCA DE FIERRO (burdina-ahoa)

Arte ekintza: Marcela Levi & Lucía Russo, Improvável Produções

Artium, Ekialde-Goikoa aretoa, sarrera doan
Maiatzaren 12an, 20:30ean



10. Proklama honekin lantegi eta topaketen programarekin jarraituko dugu Gasteizen, honako galdera honetara itzultzeko: Zertan da «Gu, herria» ariketa performatibo bat? Galdera horrek jadanik aurreko edizio zenbaitetan aipatua dugun *Gu, herria. Bilera-askatasunaren inguruko gogoetak* izeneko Judith Butler-en testu batean du jatorria. **Hamargarren edizio** honek bi inarrosaldi mota izango ditu ardatz: gorputz fisikoarena eta historiarena. Gailu gisa, gorputzak dituen jakiturien artxiboa erakusten digu, beste gorputzetatik ikasitako tekniken bitartez. Historiaren kontakizun ofizialak marrazten duen ildo ideologikoan, zenbait biltzinka hautesman daiteke, zenbait izkintxo, zeintzuk, sinkopetzat edo mugimendu sinkopetuz hartuz gero, historiaren inarrosaldi batez mintzo baitzaizkigu. Proklama honetan, sinkope inarrosaldi horiei dantzaren bidez ekin nahi zaie, dantza solo piezetan. Solo piezak, bai, eta ez bakardadeak, ezpada subjektibotasun elkarretaratuak.

Envoltura artistentzako gonbit bat da, dantzazko solo piezari so egin diezaioten, ikuspuntu zabal eta hedatu batez, oraingo gorputz indibidualean beste gorputz batzuk, beste teknika eta beste denbora batzuk distirarazteko moduak esploratzeko asmoz. Sustatzailea Isabel de Naverán izan da, eta Proklama honentzako piezak sortu dituztenak Idoia Zabaleta, Leonor Leal, Pedro G. Romero eta Bobote dira. Sinkopearen ideia, Antonia Mercé, La Argentina (1830-1936) izan zenaren irudian gorputzua, hiru eszenetako bakoitzaren oinarrian ageri da. **Isabel de Naverán** arte ederretan doktore ikerlaria da. Bulegoa Zenbaki Barik (Bilbo) arte eta jakitua bulegoko kidea da, bai eta ARTEAkoa ere (Madril). **Idoia Zabaleta** koreografoa da; dantza eta biologia ikasi eta, bigarren horretan, ekosistemak eta biztanlerien dinamikan espezialdu zen. 2008az geroztik, Azala espazio-rem zuzendari artistikoa da, bizi den herrian bertan. **Leonor Leal** dantza klasikoa eta espainiar dantza ikasia da. Flamenkoa lantzen du, sakonki, honako ekoizpen hauekin, besteak beste: *eLe eLe*, *Mosaicos*, *Frágil* edo *JRT* (Julio Romero de Torres, margolari eta flamenkolararen gainean). **Bobote** (José Jiménez Santiago) txalo-jotzailea, dantzaria eta konpasaren azitia da *Las Tres Mil Viviendas* auzoan; azken hamarkadotako flamenkoan funtsezko norbait da. **Pedro G. Romero** 1985az geroztik ari da artista lanetan. Gaur egun, bi tresna handitan ari da lanean: *Archivo F. X. eta Máquina P. H.*

Historia(k). 1946ko ekainaren 25a, Paris. Jendeketza handia pilatu da Eliseo Zelaietako antzokiaren sarreran, *Gaztea eta Herioa*, balletaren lehen emanaldia ikusteko; obra Jean Cocteau-ren gertabide batetan oinarritua da. Jean Babilée dantzaria ageri da kartelean, maitasunez hiltzen den gaztearena egiteko. Handik berrogeita hemezortzi urtera, Olga de Soto koreografoak, obra horren gaineko ikerketa egin nahiz, gau hartan parte hartu zuten ikusleen bila abiatzea erabaki du. Pixkanaka, ikuskizuna birsortuz doa, atzo, ilunean bildurik ikuskizun hori bereganatu zutenen begiradek argiturik; elkarriketatutuenen ahotsak, zalantzak eta isilaldiak, haien oroitzapenak eta oharpenak, jatorrizko obraz harago doaz eta azken mendeko historiara garamatzate. **Olga de Soto** koreografo eta dantza-ikerlaria da, Valentzian jaioa eta Bruselan kokatua. CNDC—Centre National de Danse Contemporaine de Angers frantziar eskolaren lizentziaduna da. Egiten duen lana koreografia sorkuntzatik tauletako dokumentalera, ikusizko arteetara, arte plastikotara eta muntaketetara doa, diziplinen arteko porositatearekin jolastuz; aldi berean, harreman sendoak lotzen ditu artearen historiaren eta historia sozial eta politikoaren artean, bai eta ibilbide eta esperientzia indibidualekin. 2013an, Olga de Soto Belgikako SADC delakoaren Nazio mailako Sariduna izan zen, Antzertiaren kategorian, bere ibilbide osoarengatik eta *La Mesa Verde* delakoaren inguruan egindako ikerketa eta sortze lanarengatik.

Oihana. Txara gizakiak zelatan. «*Bilgarria*-n irakurritako zatietako batzuk —trakeski deklamatuak, baina Bobote-ren dantza zaharrak aireratuak— idazketa proiektu zabalago baten parte dira, *Wittgenstein y los gitanos* delakoaren parte. Iruditu zitzaidan krosko horietako batzuk, baso batean barneratuko balira bezala, liburua irekitzen doazen horiek, hau da, *Selva o los bosquimanos emboscados* ['Oihana edo txara gizakiak zelatan;'] izenekoak, egokitu litezkeela historiaren zamarenean gorputzek jasaten duten galera horri, sinkopeari, izenen bizitzaren eta nornahirenen artean gertatzen den bat ez etortze horri. Horretaz mintzatuko gara, hala espero dut», idatzi du **Pedro G. Romero-k**.

Boca de Fierro. Musikaren aldetik, Belen hiria, Para estatuaren hiriburua, Brasilen iparraldean, amazoniar Karibea da, kontrabando bideei esker sortua. 1950. urteetan, lurringaiak eta whiskia ekartzen zituzten itsasontziek, eta merenge, saltsa eta zouk musikako biniloak ere kargatzen zituzten. Handik hirurogei urtera, karibear soinuaren eraginez, paratar musika «tecnobrega» musika generora etorri zen —musika genero hori herri musikak bereganatu eta aldatuz sortu zen. Dantza-rapsodia infernuzkoa, begirunegabea, jostaria, kitzikatzailea, lizuna, oldartsua, maltzurra eta sentzuala. Beste gorputzez, anbiguotasunez, ongiez eta gaizkiez beteriko gorputz batetik, hau da, giza-gorputz batetik, jende-gorputz batetik, sortutako dantza. **Marcela Levi & Lucía Russo-k** *Improvável Produções* sortu zuten 2010ean. Honako pieza hauek sortu dituzte, besteak beste: *Naturaleza Monstruosa* (2011/12), *Mordedores* (2015), *Boca de Fierro* (2016/17), bai eta *Sandwalk with me* (2013) hiri eskuhartzea ere. Levi & Russo egiletza partekatuko proiektu baten alde daude, zuzendaritza artistikoa norabide irekiaren aldera abiatzen delarik, non kokapen desberdinak elkarrekin gurutzatzen baitira, lerro desbideratzaileak eta bat ez etortzea indar kritiko eraikitzailetzat eta ez elkarren kontrako polaritate auto-ukatzailatzat hartzen dituen prozesu batean.

Proklama Artiumek eta AZALAK elkarlanean antolatzen duten arte bizien inguruko egitarau sorta da
Egitarauak **11. Proklamarekin** jarraituko du



Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

AHANZTEKO KONTATU

Gorputz- eta historia-sinkopeak, erritmodun keinu errukior gisa, antzezleku guztiak ibiltzen ditu, hainbat angulutatik, harik eta XVI. mendean Henry de Mondeville kirurgialariak sortutako sinkope kontzeptuarekin harremanetan sartu arte; sinkopea ulertzeko modu hori gizakiak bere baitan duen gupida-mekanismoarekin lotuta dago, hau da, «gorputzak beroa eta jariakina krisi uneetan banatzeko duen modua»-rekin.

[...]

Ahantzirikoa, dio Chantal Maillard-ek, bat-batean ager daiteke, deitua izan gabe «plus batekin sentipenen kalitatean»¹ bizi arazten duen ikusmolde lineala ebakitzen duen dirdira bat bezala.

[...]

Gorputzen itzulgarritasuna

Demagun ahantzirikoaren agertze hori dela dantzan gertatzen diren berreraikitze-prozesu hutseginetan ematen dena; beste leku batean eta historiako beste une batean sortu eta dantzatu den teknika bereganatzen saiatzean gorputzak dituen zailtasun fisikoak agerian jartzen dituzten berremate saioez mintzo naiz hor.

Galdera bikoitza egin dezakegu: alde batetik, zein ahal mantentzen dira denbora joanarekin eta, hartara, atxikitzea merezi dute, eta, beste aldetik, orainaldiaren zenbat erakuts daiteke iraganaren berreraikitze, deitze edo distiratzeko prozesu horien bidez soilik.

1999an, Martin Nachbar koreografoak *Afectos Humanos* deituriko bakarsaioen seriea berraktibatze prozesu bati ekin zion; serie hori 1962. urtean sortu zuen Dore Hoyer alemaniar koreografoak. Hori egiteko, Waltraud Luley-rekin jarri zen harremanetan, Hoyer-en adiskide mina eta batzuetan haren managerra ere izan baitzen eta hark baitzuen, dirudienez, transmisiorako ordezkari, *Afectos* horiek berriz ematen inor interesatuko zenerako. Martin Nachbar harekin harremanetan jarri zenean, Waltraud Luley-k 84 urte zituen eta oraindik gidatzen zuen dantza estudio bat Frankfurt-en. Handik 9 urtera, 2008an, Nachbar-ek *Urheben Aufheben* pieza eman zuen lehen aldiz.

2009ko apirilean, Berlinen emandako hitzaldi batean, Nachbar-ek kontatu zuen nola, Waltraud Luley-rekin harremanetan jarri zenean, hark Nachbar-en adinaz, pisuaz, garaieraz galdetu eta dantzari liriko ala dinamikoa ote zen jakin nahi izan zuela lehen-lehenik.

Luley-k etengabe aipatzen zuen garrantzi handikoa zela Hoyer-en jatorrizko sorkuntzak eman nahi lituzkeen dantzaria fisikoki sasoiaren eta borondate betean izatea. Eta Nachbar gaztegia iruditu zitzaion arren, bidean gidatuko zuela onartu zion.

Nachbar-ek dioenez, aurkitu zituen zailtasun handienetako bat izan zen onartzea dantzari bezala aritzeko ikasi zituen teknika garaikideek (hala nola Release edo Contact Improvisación) ikasten zuen zeinahi mugimendu berri kutsatzen zutela. Hau da, ez ziren teknika «neutroak» dantzariaren sormen askearen zerbitzura; egiten zuen guztia baldintzatzen zuten, ideologikoki edo. Halatan bada, Dore Hoyer-en dantzetako batzuk beso-besaburu tentsio finez eman behar ziren eta bazirudien bera ez zitekeela horra bil.

[...]

Jakin nahiko nuke ea Dore Hoyer oraindik bizi balitz (107 urte izango lituzke orain), bere serie ezaguneko bakarsaioak berregiteko gai izango ote litzatekeen. Seguruenik berak ere ezingo luke denborarekin ikasitako tekniken, bizitako esperientzien, bereganatutako keinuen metatzetik aske izan, eta *Afectos* haiek eskatu zuten leku hura berbera berriz bizi.

Gorputza oroitzapenen, tekniken, eginmoldeen artxiboa da. Gobernagailua da, jakiturien artxiboa.

Baina artxibo hori nola eskuratu? Galdera hori egiten du André Lepecki-k oraintsuko *El cuerpo como archivo: el deseo de recreación y las supervivencias de las danzas* (2010)² izeneko testuan. Eta erantzun biribila ematen dio galderari: koreografikoki baizik ezin da egin, «zeren koreografiak zerbait badaki», dio, «badaki artxibo batek ez duela metatzen: jardun egiten du».

Egileak kontatzen digu nola, bere solasaldietan, Nachbar-ek aipatzen duen ikerketa bat abian jartzea, non ez berak bakarrik, koreografo gisa, artxiboa bisitatuko duen, baizik eta artxiboari ere bere gorputzean sartzen utziko dion. artxiboa gorputzaren bitartez ikustaraztea egile bientzat litzateke «artxiboa gorputzean sartzea: elkarren metamorfosi bat, elkar hartzen duena, sortzen duena, bereizten duena, iraitzen duena, are eta elementu birtualek, alegiazkoek, eta errealek, egiazkoek, beren lekuak elkartrukatzen dituzten puntu kritikoak eratzen duten arte» (Lepecki 2010, 70).

Birtual edo alegiazko eta erreal edo egiazkoaren arteko bat egite dinamika hori izan liteke «indar polarren» batzea ekarriko duena; hala dio Victoria Pérez Royo-k, esaten baitu, *Urheben Aufheben* obran «aldi berean ematen direla, nahas-mahas, teknika biribil-biribila eta zirrarako oldar moduko bat»³. Aldibereko eraginen ideia hori garatzeko, Pérez Royo-k Fredric Jameson-en funtsezko kontzeptu bat baliatzen du: bilgarria, gorputzaren itzulgarritasunaren gaia planteatzen laguntzen diona; hartara «bildutakoaren eta bilgarriaren arteko hierarkiazko harremana mantentzen da, baina itzulgarri bilakatzen da, bilgarriak ere bil baitaitezke».

André Lepecki-k dio Martin Nachbar-ek «itzulera bat interpretatzen duela».

[...]

Itzulera

[...]

Espektroaren erdibitzea ispiluzkoa da ere, ispiluzkoa da batez ere; islatzeen islatze baten moduan aritzen da. Mugitzean, haietako bakar bat ere ez da bakarrik mugitzen, ezpada berarekin dantzan den, mugitzen duen, beste baten mugimenduak bizi arazita.

Biltze prozesu baten aurrean izateaz gain, iraganaren hezurramitzearen eta orainaren ezin saihestuko presentziaren arteko bizipenen aldibereko prozesu baten aurrean izateaz gain, gorputzaren ber-identifikatze prozesu etengabe baten aurrean ere bagaude.

Prozesu hori oroitzeko saio batez hasten da eta, azkenean, onartzen du ahanzturaren deia dela, ustekabea, gorputz honetan edo beste batetan bizi izan zen moduan agertzen den ahanzturaren deia, non koreografiaren ahalak jokatzeko baitu, non kontakizun horren mekanismoak konta eta azal daitezkeen.⁴

1 Chantal Maillard-ek *Bélgica* izeneko bere liburuan, kontzientzia bikoitzeko ariketa bati ekiten dio; iraganeko eta orainaldiko kontzientzia ariketa bat da, bere jaioterriarekin, Belgikarekin, duen harremanaren gainean, ahantziriko oroitzapenen bila egindako bidaien bitartez. Ikus C. Maillard (2011): *Bélgica*. Valentzia: Editorial Pre-textos.

2 André Lepecki-ren aipua *El cuerpo como archivo: el deseo de recreación y las supervivencias de la danza* (2010), Écija-n argitaratutako testutik eta beste honetatik hartuak dira: De Naverán (Eds.): *Lecturas sobre danza y coreografía*. Madril: Arte-a editorial. 2013.

3 Victoria Pérez Royo-ren aipu guztiak testu honetatik hartuak dira: *Replantear la historia de la danza desde el cuerpo*, hemen argitaratua: De Naverán (Ed.): *Hacer Historia. Reflexiones desde la práctica de la danza*. Bartzelona: Col. Cuerpo de Letra. Danza y Pensamiento.

4 Horrela kontatzen digu Rabih Mroué-k, honela dioelarik: «Ez naiz oroitzeko kontatzen ari. Aitzitik, ahantzi dudana segur izateko ari naiz kontatzen. (...) Eta oroitzen saiatzean, asmatzen hasten naiz eta honela esaten: menturaz, agian, baliteke, beharbada, seguruenik, badirudi, hala ematen du, ez naiz segur baina, etab.» Ikus: Aurora Fernández Polanco (2013): «Fabrications. Image(s) Mon amour», *Image(s) mon amour. FABRICATIONS*. Madril: CA2M. 10-59.

Isabel de Naverán. «Contar para olvidar» testuaren zatiak, Escenas do Cambio koaderno-liburuan argitaratua, Santiago de Compostela (2017).